



ENTRENAMENDU ETA TXAPELKETERETARA ITZULERARI BURUZKO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN OHARRA

Gipuzkoako Futbol Federazioko Zuzendaritza Batzordea premiaz bildu zen atzo, Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretua eta ondorengo argibide oharra aztertzeko.

Neurri berriak indarrean jartzearekin batera, eskola-kiroleko entrenamenduei berrekitea baimentzen da, sei parte-hartzaileko taldeetan, beti berberak, eta aldagarrik erabili gabe.

Kirol federatuari dagokionez, entrenamenduak eta lehiaketetara itzultzea baimentzen dira, baina 100.000 biztanleko 500 kutsatze-kasu baino gehiago dituzten herrietan ezin izango da ez entrenatu ez lehiaketarik egin, kategoria profesional eta erdi-profesionalak izan ezik. Kontuan izan behar da une honetan Gipuzkoako herri batzuk egoera horretan daudela eta beste batzuk muga hori gainditzetik oso gertu daudela.

Gipuzkoako klubek ondorengo kezkak adierazi dituzte, besteak beste: zer gertatzen den itxiera perimetrala ezartzen duten udalerriekin; 21: 00ak baino beranduago entrenatzeko ezintasuna instalazioen itxieragatik; Gure Txokoa eta Beti Gazte klub nafarrek eta haien arerioek ezin dutela mugitu foru-erkidegora joateko, etab.

Horregatik guztiagatik, eta gure klubek egoerak sortzen dituen zalantzak ikusita, Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskadiko Futbol Federazioari argibide osagarriak eskatu zaizkie, eta datorren ostiralean bilera bat egingo dute EAEko hiru lurralde-federazioek, bateratze-lana egiteko eta hurrengo urratsak koordinatzeko.

Zuzendaritza Batzordearen interpretazioaren arabera, talde federatuetan entrenamenduak egin datezke orain argitaratu den araudiari eta indarrean dauden protokoloek jarraituz. Prestakuntzarako lagunarteko partidei, lehiaketari berrekiteko aukerari eta txapelketaren formatuari dagokienez, hurrengo egunetan hartuko da erabakia, informazio guztia bildu eta lurralde-federazioekin bilera hori egin ondoren.

Otsailaren 7a baino lehen ez da berriz lehiatuko; izan ere, gure ustez, taldeek egokitzapen-aldi berri bat behar dute, eta, gainera, datozen asteetako osasun-datuen bilakaera erabakigarria izango da futbol-partiden itzulera, lehiaketa mota eta horrek igoerei eta jaitsierei dagokienez eraginik izango duen zehazteko.

Edozein berritasunen berri emango zaie klubei, eta ohar berri bat argitaratuko da datorren ostiraleko hiru federazioen bileraren ostean.

Donostia, 2021eko urtarrilaren 13a

ZUZENDARITZA BATZORDEA

